

Kalkulatu eragiketa hauek luzera, edukiera eta masa unitateekin:

Adibideak:

- $2,5 \text{ km} - 1479 \text{ dm} = (\text{m})$

Dena metrotara pasatuko dugu eta gero kenketa egingo dugu:

$$2,5 \text{ km (m)} = 2,5 \times 1000 = 2500 \text{ m}$$

$$1479 \text{ dm (m)} = 1479 : 10 = 147,9 \text{ m}$$

$$\text{Guztira} = 2500 - 147,9 = 2352,1 \text{ m}$$

- $4 \text{ kg } 9 \text{ hg } 2 \text{ g} : 6 = (\text{Era konplexua})$

Dena unitate berera pasatuko dugu (nik dena gramotara pasatzea aukeratuko dut), gero zati sei egingo dugu, eta amaitzeko, era konplexura pasatuko dugu.

$$4 \text{ kg } 9 \text{ hg } 2 \text{ g (g)} = 4902 \text{ g}$$

$$4902 : 6 = 817 \text{ g}$$

$$817 \text{ g (era konplexua)} = 8 \text{ hg } 1 \text{ dag } 7 \text{ g}$$

Orain zure txanda da! Kalkulatu eragiketa hauek:

- $12,6 \text{ hl} + 6,3 \text{ kl} = (\text{l})$

EMAITZA:

- $6 \text{ hg } 4 \text{ dag } 5 \text{ g } \times 4 = (\text{era konplexua})$

EMAITZA:

- $7249 \text{ l} - 1 \text{ kl } 7 \text{ dl} = (\text{hl})$

EMAITZA:

- $7 \text{ hm } 6 \text{ dam } 8 \text{ m} : 4 = (\text{era konplexua})$

EMAITZA: